



**2017KO OTSAILAREN 10EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko otsailaren hamarrean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkolia Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko urtarrilaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Hauek, bere espedienteetan dauden 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 121 zbk.dun fakturen zerrenda, HOGEITA BOST MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (25.330,29 €)takoa eta 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, SEI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA LAU ZENTIMO (6.548,24 €)takoa dira.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du aurreko urtean ere esan zutela eta orain gauza bera diotela, hau da, herri argiterian gastua, 2016ko zerrendan dagoena, handia iruditzen zaiela, eta zerrenda honen onarpenean abstenitu egingo direla.

Honen aurrean eta fakturen onarpenak bozketan jarrita, 2016ko zerrenda aldeko hiru boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta bi abstentzioz (EH Bildu) onartzen da eta 2017 ekitaldiari dagokion zerrenda aho batez.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 15-11-11 zbk.dun esped.: zerbitzua murriztea urtarrilaren 30etik aurrera, astean 5 ordutik 4 ordura, onuradunaren eskariz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %13 izango da.



- 14-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea otsailaren 2tik aurrera, astean 8 ordutik 10 ordura, onuradunak laguntza gehiago behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 14-01-07 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea 2017ko urtarrilaren 28tik aurrera, aldi baterako egonaldian egoitzan dagoelako.
- 16-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzua murriztea urtarrilaren 31tik aurrera, astean 7,5 ordutik 4,5 ordura, onuradunaren egoera hobetu delako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 14-01-011 zbk.dun esped.: mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea 2016ko abenduko hilabetetik, onuradunaren heriotzagatik (2016-11-26).
- 16-01-017 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea martxoko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izategatik.
- 17-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzaren suspentsioa ematea, otsaileko hilabetetik diru sarrerak aldatu egin direlako.
- 16-01-014 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze eta alokairu gastuetarako laguntzaren suspentsioa ematea, urtarrileko hilabetetik diru sarrerak aldatu egin direlako.
- 15-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntzan eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntzan alta ematea martxotik. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100 da.
- 15-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 €ko diru laguntzan eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntzan alta ematea, otsailetik. Ematen zaiona eskatutakoaren % 50 da.
- 17-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntzan eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntzan alta ematea, urtarriletik. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Laguntzaile gazteentzat bekak.-

Laguntzaile gazteentzako bekaren 2017 ekitaldiari dagokion deialdia egitea.

Presoen familientzat garraio laguntza.-

- 12-13-03 zbk.dun esped.: Bere senitarteko bat preso dagoenez, bidaietarako 137,36 € ematea hilero.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kulturako zinegotziak aurkeztutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabakia hartzen du:



- Danborrada taldeari.-

2016ko San Prudentzio jaietako haur eta helduen danborradaren antolaketarengatik 550,38 € ematea.

V.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskara eta hezkuntzako zinegotziak egindako proposamenak aztertzen dira jarraian:

- Lazkao Txiki Musika Eskolari urterako izendatutako diru laguntzen %50 ematekoa.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du ez dakitela ezer egin den baina denen artean lanketa egiteko gaia dela. Eta orain, otsailean, erdia ematea asko iruditzen zaiela, aurretik plan bat egin gabe, zenbat, nola, noiz eta abar finkatuko lituzkeena. Eta hori horrela izanda abstenitu egingo direla.

Alkateak erantzuten dio diru laguntza hau ematen zaiela jarduerarengatik baina gainera eragin biderkatzailea duela, izan ere Eusko Jaurlaritzak gehiago ematen die udalak emandako diru laguntzaren ondorioz.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da, eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko hiru boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta bi abstentzioz (EH Bildu), Lazkao Txiki Musika Eskolari 2017rako aurrekontuaren izendatutako diru laguntzaren %50 ematea, hau da, 25.000 € ematea erabakitzen du.

- 2016an autoa eta motorra gidatzeko baimena euskaraz atera dutenei diru laguntza.-

2016 urtean gida baimena euskaraz atera duten 15 lagunek egin dute diru laguntza eskakizuna.

Eskari hauek, bere espedientean daudenak, azertu ondoren, espedientean zerrendatzen direnei, bakoitzari 100 € ematea, hau da, guztira 1.500 € ematea, erabakitzen da.

VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartzen du:

- Lazkaoko GOROSKT skate taldea.-

2017ko urtarrilaren 21ean egindako skate txapelketako probaren antolaketarengatik 550 € ematea.

VII.- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA 2017KO DEIALDIA.-

Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daudenak berritu eta modernizatzeko diru laguntzak eman nahi dira 2017ko ekitaldian eta hau horrela Etxebizitza eta Ekonomia Jarduera Batzordeak 2017ko ekitaldirako deialdia onartzea proposatzen du.

Deialdi honen oinarriak 2016ko irailaren 23ko Tokiko Gobernu Batzordean onartutako berak dira.

Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daudenak berritu eta modernizatzeko diru laguntzen 2017ko deialdia, bere espedientean dagoena onartzea erabakitzen du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) Aralarako pisten gaiaren inguruan udal honek zein erizpide jarraitu behar duen galdetzen du, eta fororen bat irekitzeko asmorik ba ote den edo.

Altuna zinegotziak (EAJ), landa lurretako gaien zinegotzi gisa, erantzuten dio Enirio Aralar Mankomunitateak urrats batzuk eman dituela, eta orain batzuk atzera egin nahi badute ere erabakia hartuta dagoela.

Aran zinegotziak esaten du jasota geratzea nahi duela EH Bildu aurka dagoela egin diren lanak eta Mankomunitateak izenpetu duenarekin. Gehitzen ez duela esan nahi pisten aurka daudenik baina hitz egin eta erabakia hartu denen artean egin beharrekoa dela.

Gaiaren inguruan luze eztabaidatzen da.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA